ZUMAIAKO HILABETEKARIA

BALEIKE

240. ZENBAKIA. EURO BAT
2015eko OTSAILA

www.baleike.eus

ISLAMA, BARRUTIK

Zumaian bizi den musulman talde batek Bakea Kultur Elkartea sortu du, gizartaratzeko eta islama ezagutzera emateko asmoarekin.

ERREPORTAJEA: ALFREDO GARCIA, ERLEZAINA

Indukzioa

5.200 W gunea

AEG

HK633222FB

AEG-k ~~89,90€~~ itzuliko dizkio erosleari

899€

BP3013021

Pirolitikoa

Indukzioa

ZANUSSI

Z6233IOK

699€

ZOP27902X

Pirolitikoa

MUNTATZEA DOAN!

SUKALDEAREN HILABETEA

Bitrozeramika

BEKO

OSE 22120X

349€

Funtzio Anitzekoa

Bitrozeramika

ZANUSSI

ZEV6330

199€

ZOB442X

219€

Funtzio Anitzekoa

ENDAÑETA ZUMAIA ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694

www.endanetazumaia.com

BALEIKE 240

A. Rubio Aprea

15
baleike +
ERRESPETUAN DAGO GILTZA

5
hitz-tantak
NAGORE ETXABE

16
erreportajea
"ERLEAK DESAGERTZEA HONDAMENDI EKOLOGIKOA LITZATEKE"

24
baleike.eus
BALEIKE.EUS BERRIA, KOMUNITATEA INDARTZEKO

30
bertso sorta
MAIALEN VELARDE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon Urbieta, Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

kutxa

kutxabank

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

PUBLIZITATEA



NAGORE **ETXABE** | Low Riders taldeko kidea

“Ez dugu arazorik beste hizkuntzetan abesteko, baina country doinu bat euskaraz...”

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

25 urte ditu eta “artista profesionala” dela dio irribarre handi batekin. Arte Ederretan lizentziatua eta masterra ere ateratakoa, orain bateria jotzen du bizpahiru taldetan eta han eta hemen lantxo batzuk ere egiten ditu: “diskoen diseinuak, logotipo batzuk, bodetako gonbidapenak... Perlak taldearen bideoklipa ere oraintxe amaitu dut”. Low Riders rock taldean jotzeaz gain, Ez den giro erromeria taldean ere jotzen du eta Urko Menaiarekin duo bat ere osatu du.

2014 urte amaieran *Plays Lee* izeneko diskoa atera du Low Riders taldearekin. Estatu Batuetako altxor ezkutuetako bat den Lee Hazlewood kantagilearen hamar kantak osatzen dute emaitza.

Noiztik zabiltza musika munduan?
Abesbatzak eta hori guztia kontuan hartzen bada, esan daiteke bizitza guztia daramadala gauza batean ez bada bestean sartuta. San Pedro Txiki abesbatzan egon nintzen eta Bandatik ere pasa nintzen. Unibertsitatean Erasmusera joan nintzenean fundamentua pixka bat galdu nuen, baina itzulitakoan [Zarauzko] lokal fantastikoan hasi nintzen eta hiru urtera doa dagoeneko.

Makina bat urte egin zenituen San Pedro Txikin. Zer geratu zaizu garai hartatik?
Dena esango nuke. Bateria jotzen duzunean gauza askotan jarri behar duzu arreta. Koroan ikasi nuen ahots guztiak entzuten, nirea egiten eta batzuetan, akustikaren arabera, itsu-itsuan joaten. Oinarriak geratu zaizkit, behintzat, baina egia da bateria jotzea beste mundu bat dela.

Azken santelmotan kalejiran atera zineten...
Geni Dovalen oroimenez egin genuen. Batzuek diogu polita izango litzatekeela errepikatzea, urtero ez bada pare bat urtean behin. Abesbatzaren kontzertuarekin hasten ziren festak eta hori barrenean geratu zaigu. Kantatu, afaldu eta giroan sartzen ginen. Zoriontsu ginen horrekin.

Perkusioarekin noiz hasi zinen?
14 bat urte izango nituen. Akordatzen naiz Musika Eskolan hasi nintzela. Josefina Azpeitiaren akademian hasi nintzen musika ikasten eta han pianoa eta eskusoinua irakasten zen (orain trikitixarekin ere hasi da). Eskusoinua jotzen hasi nintzen, baina ikusi nuen hura ez zela niretzat. Etxean beti perkusioa jo nahi nuela esaten nuen. Perkusioa, perkusioa, perkusioa... Zergatik? Ba, ez dakit. Uste dut instrumentu berak deitzen zaituela.

Perkusioa ez da ikusten emakumeentzako instrumentu bezala...
Bai... Agian handia delako eta pentsatzen delako emakumeok ez dugula indarrik. Ni ederki moldatzen naiz, ba, nire bateriarekin. "Hildakoa" ere badut... Hildakoa deitzen diogu burdineria eramateko poltsari. Burdin guztiekin kristoren pisua hartzen du azkenean. Baina nire instrumentua den heinean, harekin moldatzen ikasi behar dut. Oraindik baditugu aurreiritzi batzuk sartuta eta gauza batzuk harritzen gaituzte, baina ari da pixkanaka aldatzen eta horrek pozten nau.

> "Etxean perkusioa jo nahi nuela esaten nuen. Zergatik? Ba, ez dakit. Uste dut instrumentu berak deitzen zaituela"

Zer bide daramazu musika munduan?
Bateriarekin batera perkusio afrikarreko ikastaroak ere hartu nituen. Harekin denbora dezentean ibili nintzen, baina orain lagata daukat eta pena pixka bat ematen dit. Musika Eskolatik Udal Musika Bandara pasa nintzen, baina unibertsitatean hastean utzi nuen. Orain hiru urte, zumaiar batek, Evelio Perezek, gonbidatu ninduen Zarauzko lokaletara joatera lagun batzuk ezagutzeko. Dena Evelioren kulpa da, eta asko eskertzen diot bestela ez dakit non egongo nintzatekeen. Talde hura ez zen atera, baina hango jendea ezagutu nuen eta Syrah taldea sortu genuen. Abeslariaren kantak jotzen genituen, baina bere neskarekin Alacantera bizitzera joan zen eta baxu jotzailea eta biok geratu ginen. Garai hartan Low Ridersek lokal berean entseatzen zuen.

Eta haiekin hasi zinen. Talde plurinazionala dela esan daiteke.
Marek [Barath, ahotsa eta gitarra akustikoa] Eslovakiakoa da eta Michal [Kapoun, gitarra elektrikoa eta banjoa] Txekiar Errepublikakoa. Orain baxu jotzaile berria dugu, Nagore Mitxelena, donostiarra. Marek eta Michalek urte pila bat zeramaten hemen bizitzen, bat Zarautzen eta bestea Getarian. Kanpotarrak izanik elkar ezagutu zuten; biek jotzen zituzten instrumentuak eta elkarrekin jotzen hasi ziren.

Country ukituak dituen rock amerikarra jotzen

duzue. Ez da hemen hain ohikoa.
Ari dira taldeak sortzen: Arizona Baby, Corizonas... Joseba Irazoki ere hortik ibili da bueltaka. Badago halako interes bat edo guk, behintzat, musika hori asko entzun dugu eta hemen nolabait kanalizatzen dugu.

***Plays Lee* izeneko diskoa zuen lehen emaitza al da?**
2013an lehen diskoa atera genuen bertsio batzuekin. Country eta rockeko bertsioen pot-pourri bat zen, nahiko erraz entzuten zena. Bigarrena grabatu aurretik Lee Hazlewood konposatzailea ezagutu genuen eta pentsatu genuen egokia izango zela kanta batzuk aukeratu, gure forma eman eta tributu gisa ateratzea, jendeak musikari hori ezagutu dezan.

Ausarta ere bada Hazlewood bezalako kantagile demagun ezezagun baten kantez osatutako disko monografikoa ateratzea.
Countryko izen tipikoetako bat izan da, ez agian Johnny Cash bezain ezaguna, baina kanta batzuk beti izan ditu hor bueltaka. Bolara bat izan zen eta aprobetxatu egin genuen geldirik ez egoteko.

Inoiz izan den kantagile onena izan dela diozue diskoan. Askotxo da hori esatea!
Saltsa pixka bat eman behar da!

Diskoa zuek editatu duzue. Diskoetxeekin ez zarete harremanetan jarri?
Ez dugu pentsatu ere egin; inork ere ez gaitu deitu. Aurrekoa ere geure kabuz editatu genuen. 1.000 kopia atera genituen eta 800 bat saldu dira. Hau bagenekien arraroagoa zela, baina pixkanaka ari da saltzen.

Zer harrera izan du?
Ona. Jendeak ez du Hazlewood asko ezagutzen. Bizpahiru kanta ezagutzen dira gehien, Nancy Sinatrarekin ibili zen garaikoak. Diskoa ateratzeko asmoa genuen eta 8-10 bat kanta aukeratu genituen horretarako.

> "Bertsioak nahiko erraz ateratzen zaizkigu, baina kantu propioak ateratzeko esperientziarik ez dugu"

Biniloan atera duzue. Puntazoa da hori!
Kapritxoa da esateko binilo bat dugula. CDan eta biniloan atera dugu, badakigu eta badagoela jende bat biniloak erosten dituena. Gu ere zaleak gara.

Biniloko diskoek ematen duten ezaugarriekin ere jokatu duzue. Alde bakoitzaren amaieran dauden pista amaigabeagatik diot.
Sorpresa txiki bat da. Jendea pixka bat galdezka gera dadin ea zer gertatzen den, edo biniloen mundu horretan sar dadin.

Etorkizunera begira zer asmo dituzue?
Urte honetarako dugun asmoetako bat gure kantak ateratzea da, lauzpabost badira ere eta ea horrekin zerbait egiten dugun. Zailagoa da. Bertsioak nahiko erraz ateratzen zaizkigu, baina kantu propioak ateratzeko esperientziarik ez dugu.

Orain arte ingelesez abestu duzue.
Ez dugu inongo arazorik beste hizkuntza batean abesteko. Baina letrak atera beharko genituzke eta country doinu bat euskaraz... ■

PUBLIZITATEA

BEDUA ITURGINTZA S.L
ANTONIO AZPILLAGA
-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAILEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK
Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI
Erloju
eta bitxi denda
E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea
- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak
BERRITUA
Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

Egin zaitez BALEIKEko bazkide
BALEIKE
GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU EITUZTE

ekin elektrizitatea, s.l.
Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com
Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet
BEEP
DIGITAL+

ERNIO TABERNA
V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA
orange Orange
Portatilak eta mugikorrak konpontzeko zerbitzua
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

ERROTA
ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SAMILXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TLF:943860000
943860612
FAX:943860977
errota@errota-okindegia.com

FLYSCH UZKUDUN
taberna
Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 63 97

Galdona
burdindegia
Mendaro mainela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

Ganbara
TABERNA
Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Zaroa
kafetegia
Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

GLENCOE
INGELES AKADEMIA
4 PERTSONAKO TALDE MURRIZTUAK
Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 391 777
matrikulazioa dohainik!

GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391

Egin zaitez BALEIKEko bazkide
BALEIKE
GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU EITUZTE

Ikastegi homologatua
Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola
Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

ERRESPETUAN DAGO GILTZA

TESTUA: AINARA LOZANO LASA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA ETA AINARA LOZANO LASA

"Zer ireki dute hor? Zertan ari dira hor barruan?". Hilabete hauetan askok galdetu dute hori San Jose kaleko lehen zenbaki aurretik igarotzean. Bakea Kultur Elkartea jartzen du sarrerako plakan, eta bertara sartzerakoan, oinetakoak kentzeko eskaera ere bai. Zumaiako lehen meskitaren aurrean gaude. Lau lagun musulmanek izan zuten kulturgune berria sortzeko ideia eta pasa den irailean zabaldu zituen ateak. Dagoeneko 40 bazkide baino gehiago elkartzen ditu eta gizarteratzea eta herrian islama ezagutzera ematea ditu helburu.

ISLAMAREN IKASGAIAK

Ostiraleko errezoan iman bat izaten dute meskitan

Meskitara sartu eta oinetakoak kendu ditugu moketa zapaldu aurretik. Bi gune ditu lokalak eta bigarren atea zeharkatu dugu. Bertan da 19 urteko Bilal Meftah. Bilali askotan galdetzen diote zer egiten duten hor: "Jendea lokalari begira geratzen denean sartzeko esaten diet eta erakutsi egiten diet. Harrituta geratzen dira". Txirrindularitzan eta korrika ibili delako ezaguna da. Mekanizazioaren goi malako ikasketak ari da egiten Zarautzen, "oso gustura". Azken urtea du eta hurrengo urtean Ingeniaritza ikasteko asmoa du. Bilal zumaiarra da, baina gurasoak Tetuanen (Maroko) jaio ziren eta islama du txikitatik bere erlijioa. "Musulmana naiz eta Alan sinesten dut". Etxean txikitatik hitz egin du arabiera, baina ez daki hizkuntza horretan idazten eta irakurtzen. "Etxean arabieraz bakarrik hitz egiten dugu. Hala ohitu gaituzte gurasoek, hizkuntza ez galtzeko helburuarekin. Kanpoan beste hizkuntzak ikasteko aukera izango dudala esan izan didate beti. Lagunekin eta herrian, adibidez, euskaraz bizi naiz". "Eibarrera joaten hasi nintzen larunbat eta igandeetan arabiera idazten eta irakurtzen ikasteko. Korana ere ikasi nuen bertan. Baina urrunegi geratzen zitzaidan. Orain aukera izango dut herrian bertan eskolak jasotzeko. Gure Imanak [errezoa gidatzen duen pertsonak] Koranaren nondik norakoak azaltzen dizkigu eta zalantzak baldin baditugu, hark argitzen dizkigu. Oso ongi ari gara guztia ikasten", adierazi du irribarretsu. Errezurako lekua lortu dute eta Bilal gaztea egunero etortzen da meskitara.

> "Herrira zabalduta dago proiektua eta sortu berri den Anitzen Sarean parte hartzen dugu"

Bere osaba eta izebak ere Zumaian jaioak dira. Mohssin Akrikez du osaba, 35 urte dauzka eta meskitaren sortzaileetako bat da. Moketa gainean eserita gaudela, lanetik etorri berri, Mohssin proiektua azaltzen hasi da. Parisko atentatua dela eta irratitik eta telebistatik mila dei jaso ditu azkenaldian. Baita gaur ere, euskaraz hitz egiten dakien musulman bakarrenetakoa delako. Egun osoa gai horren inguruan hitz egiten ari direlako nekatu samar dago: "Amestu ere egin dut gai horrekin. Lehengusu asko ditut Frantzian eta beldurtuta egon dira islamofobia zabaldu delako. Atentatua izugarria izan da eta ez gaude ados horrekin. Hala ere, tartean gauza arraro ugari daudela iruditzen zait. Denborarekin jakingo da zer den egia eta zer gezurra… Erradikalismoa ezjakintasunarekin lotzen dut nik. Elkar ezagutza ezinbestekoa da guztiak zaku berean ez sartzeko eta islamofobiari aurre egiteko. Zoritxarrez, telebistak elikatzen du jendea eta askok guztia sinesten dute. Itzaltzeko gogoa ere ematen du batzuetan".

Zumaian ez dute sekula arrazakeriarik sentitu: "Guztiz kontrakoa da jarrera. Alde horretatik, euskaldunak beste leku batzuetako herritarrak baino irekiagoak dira". Meskita sortzeko egitasmoa udaletxean aurkeztu zutenean, agintariek hasieratik prestutasuna erakutsi zutela dio: "Proiektua ontzat jo zuten eta ondoren Elkartea sortu genuen. Bakea izena jarri diogu. Kultur elkarte bat da eta irekita gaude edozein gauza antolatzeko. Ekitaldi ugari antolatu nahi ditugu gure kultura ezagutzera emateko. Herrira zabalduta dago proiektua eta sortu berri den Anitzen Sarean parte hartzen dugu". Lau ziren sorreran eta dagoeneko 41 bazkide inguru dira. Aurreko urteko Ramadanean (ekainean) hasi ziren guztia prestatzen. "Lagunartean hasi zen guztia. Oso gutxi ginen, eta, alde batetik, gure asmoa etortzen den jendea gizarteratzea da. Nerabeek etorri eta lapurtu besterik ez dutela egiten azaltzen da maiz komunikabideetan eta gu geu eta gure kultura da horrekin guztiarekin lehen kaltetua. Albiste horiek behin eta berriz entzun eta irakurtzen ditu jendeak eta ulertzen dugu beldurra izatea. Bestearen lekuan jarri behar zara gauzak ulertzeko. Enpatia falta ikaragarria dago. Gizarteratzea bi aldetatik landu behar

ERREZOAK

Egunean bost errezo egiten dituzte musulmanek Mekara begira. Mugikorreko aplikazioa dute orduak jakiteko eta meskitara sartzean oinetakoak kendu behar izaten dira.



dela argi dugu: etortzen direnak bertakoekin murgilduz eta bertakoek etortzen direnen kultura ezagutuz. Zurrumurruei aurre egin nahi diegu gure elkartearekin", nabarmendu du Mohssinek.

Pixkanaka Zumaiako musulmanak elkartzen eta hainbat bilera egiten hasi ziren proiektuaren berri eman eta besteei gaia zer iruditzen zitzaien galdetzeko. Dirua biltzeari ere ekin zioten: "Batzuek 50 euro, beste batzuek 20, beste batzuek 10 eman zituzten eta lokalak begiratzen hasi aurretik, alkatearekin bilera egin genuen. Kultur gune bat irekitzeko proposamena ongi iruditu zitzaion. Estazioan nahi genuen zabaldu, baina gune industriala dela eta, ezinezkoa zen". Azkenean, San Jose kaleko lokala ikusi zuten. "Zestoarra da jabea eta ezaguna nuen. Alokairuan utzi digu. Hasieran 26 lagunen artean ordaintzen genuen. Bakoitzak hilean nahi duena edo ahal duena ematen du". Mohssin zutitu eta meskitako paretan jarrita duten papera erakutsi digu. Bertan jartzen du bakoitzak zenbat diru eman duen: "Alokairua, ura eta argia ordaindu behar ditugu eta batzuetan 700 euro lortzen ditugu bilketan. Gainera, hilean behin, ostiraleko errezoaren ondoren, Imanak meskitara etortzen diren musulman fededunei obrak egiteko dirua biltzen ari garela azaltzen die. Jendeak egun horretan ere dirua ematen du". Zumaiara Getariatik, Aizarnazabaldik, Zestoatik eta Azpeititik etortzen dira fededunak errezatzera. "Lehen Oriora joaten ginen errezatzera, baina gauetan

Eskuinetik ezkerrera idazten

Bakea Kultur Elkarteak arabiera zabaltzea ere badu helburu eta lau eta 17 urte bitarteko haur eta gaztetxoak aritzen dira asteburuetan eskolak jasotzen. Larunbat eta igandeetan, 10:30etik 12:30era elkartzen dira. Zumaian bizi diren hiru emakume aritzen dira irakasle lanetan, boluntario gisa: Hamida Cherfaoui, Djahida Lanani eta Leila Abourakha. Igande goiz batean bisitatu ditugu eskolan. Bi talde osatzen dituzte eta txikienak sarrera ondoko espazioan egoten dira ikasten; hamabi urtetik gorakoak, aldiz, barruko gunean. Aho zabalik begiratu digute sartzean. Hitzak nola esan behar dituzten ari dira ikasten. "Irakasleok txandatu egiten gara eskolak emateko", azaldu du Hamidak.

Urrian hasi ziren lanean eta haurrak, txikienak, batez ere, oso azkar ari direla ikasten azaldu du Hamidak. Txikien taldea (4-8 urte) 20 bat umek osatzen dute; gaztetxoena (9-15 urte), berriz, 19k: "Gehienek ez zekiten ez idazten, ezta irakurtzen ere. Guraso asko dago lanik gabe eta ez dugu kobratzen eskolengatik. Boluntario lana egiten dugu hizkuntza gal ez dadin".

Bere seme-alabei eskolak ematen ohituta zegoen, baina hau gauza berria da beretzat: "Uste baino gehiago animatzen dira euren artean arabiera erabiltzera. Nire seme-alaben lagunak euskaldunak dira eta euskaraz hitz egiten dute. Hasieran ez zuten ulertzen zertarako nahi genien irakatsi. 'Ez dugu ezertarako behar!', esaten zidaten. Baina urtero joaten gara familia bisitatzera Aljeriara eta beraiekin komunikatzeko erabiliko zutela azaltzen nien. Etxean, nik euskaraz hitz egiten dut beraiekin, baina nire senarrak arabieraz egiten die, hizkuntza ahaz ez dezaten".

Arabiera ez dela erraza aitortu du Hamidak: "Zaila da, baina beste edozein hizkuntza bezala, txikitan ikasten badute dena errazagoa da. Egunak, koloreak… nola esaten diren erakusten diegu, besteak beste. Hasieran arabiera nola idazten den ikusten dutenean, hitzak marrazkiak dira beraientzat. Helduei gehiago kostatzen zaie, baina gauza gehiago ikasten dutelako. Boligrafoa nola hartu behar duten ere ikasi behar dute, eskuinetik ezkerrera idazten dugu eta". Festa eta ohituren inguruan hitz egiten dute, Ardiaren festa eta Ramadana, kasu, nola ospatzen dituzten azaltzeko.

Aljerian frantsesa eta arabiera ikasi zituen Hamidak eta Zumaiara etorri zenean gaztelania ikasi zuen lehenengo eta ondoren hasi zen euskararekin. Erizaina da eta karrera frantsesez ikasi zuen, ez baitago medikuntza ikasteko arabierazko libururik. Zumaiara iristean titulua homologatzen saiatu zen, baina Aljeria ez denez Europako herria, ez zuen lortu. Orduan hasi zen seme-alabei etxeko lanekin laguntzen. "Euskara beharrezkoa nuen beraiei laguntzeko. Hasieran lotsa ematen zidan jendearekin harremanetan jartzea. Ardi beltza bezala sentitzen nintzen eta euskaltegira joatea erabaki nuen. Lau urte aritu naiz ikasten. Lehen urtean oso zaila iruditu zitzaidan, baina bigarrenetik aurrera hobeto moldatu naiz. Lehen haurrak txikiak ziren eta senarrak eta biok zaindu egin behar genituen. Denbora gutxiago nuen ikasteko".

Arabierako eskoletan hitz egitea kostatzen zaie, baina denbora gutxi daramatela dio Hamidak: "Seguru nago ekainean asko nabarituko zaiela zenbat ikasi duten". Euskalkiekin gertatzen den bezala, arabiar herrialdeetan ere dialekto ezberdinak dituzte eta arabiera klasikoa (Euskal Herrian euskara batua dugun bezala) irakasteko, Hamida, Djahida eta Leilak eskoletan hitzak nola esan behar dituzten adosteko astean behin bilera bat egiten dute.

Momentuz, meskitan ari dira lanean, baina beste lokal bat erabiltzeko zain dira material aldetik (mahaiak eta aulkiak) erosoago egoteko.

IKASTAROAK

Hiru emakumek ematen dituzte arabierako ikastaroak. Haien artean dago Hamida Cherfaoui (ezkerreko argazkian). Orain 9 urte etorri zen Aljeriatik Zumaiara eta euskaltegian ibili da euskara ikasten.

PUBLIZITATEA

▼ ATEAK IREKITA

Abdelmoneir Uladlarbi eta Bilal Meftah tearekin eta shiba *izeneko pastelarekin. Meskitako ateak denei irekita daudela diote.*

ezin genuen joan, eta, nire kasuan, ostiraletan ere ez, eskolatik berandu irteten naizelako. Azpeitira ere joaten ziren batzuk", adierazi du Bilalek.

Ostiralak, egun sakratuak

Ostirala errezatzeko egun sakratua dute eta bete-beteta egoten da meskita. "Oso gustura" daude esperientziarekin, 50 lagun baino gehiago elkartzen baitira. Egunero, berriz, dozena bat musulman izaten dira. Egunean bost errezo dituzte. Meskitan bertan dute bakoitza zein ordutan den azaltzen duen papera itsatsita. "Aplikazio bat ere jaitsi dut mugikorrerako, guztiekin gogoratzeko", dio Mohssinek sakelakoa erakutsiz. Eguzkiaren arabera aldatzen dira orduak eta Meekara begira errezatzen dute. Errezo bakoitzaren aurretik garbitzea oso garrantzitsua da: "Hankartea, eskuak, ahoa, sudurra, burua, hankak… garbitzen ditugu eta arropak ere garbia egon behar du. Guretzat garrantzitsua den Jainkoaren aurrean aurkezteko garbiak egon behar gara".

Hitz eta pitz, ia konturatu gabe, tearen ordua iritsi da. Abdelmoneir Uladlarbi etorri zaigu edatekoarekin eta *shiba* izeneko pastelarekin: "Ea gustuko duzuen". Minutu batzuk igarota, ez da apur bat bera ere geratu platerean. Arabiar hizkuntzaren aberastasunaz hizketan hasi da Abdelmoneir, arbela begiratuz: "Bederatzi hitz daude lehoia esateko. Oso hizkuntza zabala eta interesgarria dugu". Horrek ere zaildu egiten du, ordea, adin batetik aurrera hizkuntza ikastea. "Nire semea meskitan ematen diren eskoletara etortzen da eta oso azkar ari da ikasten. Errazago barneratzen dituzte hizkuntzak adin horrekin", gaineratu du Mohssinek.

Bilal ohituta dago lagunekin bere kulturaren inguruan hitz egiten: "Adarra ere jotzen didate urdaiazpikoa mutur aurrean jarriz! [barreak]. Koadrilako denak zumaiarrak dira eta askotan galdetzen didate nire erlijioaren inguruan. Maiz jarduten dugu pare bat orduz horri buruz hizketan. Hemen ez dago oso zabalduta islama eta arrotza egiten zaie oraindik guztia". Gizarte honetan bizi eta horren gaztea izanik, erlijioa nolatan praktikatzen duen galdetzean, azkar eta zalantzarik gabe erantzuten du: "Islama bihotzean daramat. Ez du zerikusirik adinarekin. Txikitatik nahi dudalako errezatzen dut. Nire anaiek 16 eta zortzi urte dituzte eta meskitan izaten dira horiek ere, egunero errezatzen, eskolara joan eta gero. Sinesten dut Ala dela gure Jainkoa eta existitzen dela. Egia da nire adinarekin hasieran parranda gogoa duzula, agian, baina pixkanaka txipa aldatzen zaizu. Berdin-berdin ateratzen naiz gauetan. Ez dut alkohola edaten eta oso ongi pasatzen dut lagunekin".

> "Islama bihotzean daramat; ez du zerikusirik adinarekin; txikitatik nahi dudalako errezatzen dut"

Zabaldu zutenetik geroz eta jende gehiago etortzen da meskitara. "Hau ez da inorena. Denona da eta edozein sar daiteke barrura. Hala ere, irudia zikindu dezakeen norbait etorriko balitz, diskurtso erradikalarekin, esaterako, segituan botako genuke", argi utzi du Mohssinek. Bizitzan bakoitzak zoriontasuna bilatu behar duela diote eta beraientzat islama da zoriontasuna: "Ez dugu inor kaltetu nahi. Errespetuan eta gizarteratzean dago giltza eta gure elkarteak horixe du helburu". ■

ALFREDO **GARCIA** | Erlezaina

"ERLEAK DESAGERTZEA HONDAMENDI EKOLOGIKOA LITZATEKE"

Eztia, gosariak gozatzeko; polena eta erregin jelea, neguan indartzeko; propoleoa, infekzioei aurre egiteko. Asko ematen digute erleek, baina ezer gutxi dakigu haien bizitzaz. Alfredo Garcia erlezainak ederki ezagutzen ditu.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Txikitatik ezagutu ditu erleak etxean. “Gure etxean beti izan ditugu erleak. Gogoan daukat nola aitak abaraskak kendu eta eztia filtratzeko zakuak erabiltzen zituen. Eztia keramikazko ontzi handietan gordetzen zen eta kitto. Dena eskuz egiten zen orduan”. Burgos iparraldeko Santurde herrian jaio zen Alfredo Garcia (1953), Merindadeetan. “Eskualde menditsua da, eta erlezaintzarako oraindik ondo dago kontserbatuta”. Gipuzkoan, ordea, zailtasun handiak dauzkate eztia ekoizteko. “Basamortu berdea da hau: pinuak, zelaiak, ia lorerik ez dago... Orain akazia ere kendu nahi dute, espezie inbasorea delakoan. Gu ez gaude ados, hemen bizi diren erleentzat ezinbesteko da, maiatzean ez dute beste lorerik eskura”.

Irakaskuntzak ekarri zuen Alfredo Garcia Burgostik Zumaiara. “Soldadutza amaitu eta Zumaiara bidali ninduten, eskola publikora. Lehen “las nacionales” deitzen zitzaien. Dena gaztelaniaz izaten zen. Ni etorri eta sei edo zazpi urtera Irale programa sortu zen irakasleok euskara ikasteko. Urtebete liberatu nintzen lanetik eta euskara ikasi nuen”. Zumaian 35 urte egin zituen irakasle, 2013ko abenduan erretiroa hartu zuen arte. Orain denbora gehiago dauka erleei eskaintzeko.

“Ni erleekin serio hasi nintzen duela 30 bat urte, Zumaian nengoela”, hasi da kontatzen. “Martxan jartzeko, erlekumeak behar nituen –erregina eta bere erle multzoari esaten diote erlekumea–. Lehenbizikoak Lanestosan (Bizkaia) erosi nituen, gizon zahar bati”. Santurde jaioterrira eraman zituen aurrena, baina gero Aizarnara ekarri zituen. “Han izan nuen lehen erletegia. Gaur egun gehiago dauzkat: Itziarren, Burgos iparraldean... Baina gehienak Araban dauzkat”.

> “Transhumantzia beti lotzen dugu ardiekin baina erleekin ere asko egiten da”

Transhumantzia

Transhumantzia beti lotzen dugu ardiekin, baina erleekin ere asko egiten da. “Espainiako profesionalek etengabe egiten dute. Hasten dira, adibidez, Huelvako eukaliptoetan, gero pasatzen dira erromerora, gero laranjondoetara eramaten dituzte erleak, handik Madril eta Soria aldera igotzen dira, eta amaitzen dute Galizian eta Burgos iparraldean, gure etxe inguruan”. Kamioi handiak izaten omen dituzte erlauntzak batera eta bestera garraiatzeko. “Baimena eskatzen dute interesatzen zaizkien herrietan, hilebete egiten dute leku bakoitzean eta martxa. Horrela urte osoan”.

Alfredo Garciak ere egiten du transhumantzia bere erleekin. Neguan hemen izaten ditugu, baina uztail hasieran Burgosera edo Arabara mugitzen ditugu, eguzki loretara edo txillarretara”. Hemen saiatzen dira eztia egiten baina ez dute lortzen. “Hemen oso gutxi ekoizten da. Ondoen dauden garaian ere, maiatzean, adibidez, pare bat astez euria egiten badu, ez dago zer eginik. Jaten eman behar izaten diegu ez hiltzeko; edo, bestela, transhumantzia egin”.

Erlezaintzaren zikloa

Ezti kanpaina bat amaitu orduko hasten dira hurrengoa prestatzeko lanak, irail amaieran. Materiala garbitzeaz gain, erleei lana aurrezten diete. “Argizari birjina prestatu behar izaten da. Laminak trokelatu egiten dizkigute, hexagonoak eginda. Gero koadrotan jartzen dira, goitik behera. Horrela, alde batetik, erlauntzak eta abaraskak uniformizatu egiten ditugu; bestela, erleek beraien erara egingo lituzkete eta gero ezingo genituzke erabili. Eta, bestetik, lana kentzen diegu. Argizari kilo bat sortzeko erleek hamar kilo eztiren energia behar izaten dute”.

Ondoren, barroaren –akaro bat– kontrako tratamendua egiten diete. “Neguan erlauntzan daude gordeta eta pare bat hilabetez egiten diegu tratamendua, adibidez, azido salikoarekin. Ez badiegu tratamendua egiten, akaroak ugaldu eta handitu egiten dira eta erleak gaixotu eta hil egiten dira”.

Halaxe pasatzen dute negua. “Hemen, kostaldean, Gabonak aldera hasten da erregina arrautzak jartzen, eta lehen erlea urtarrilaren 20aren bueltan jaiotzen da”. Aurrena, sahatsaren lorearekin eta txikori belarrarekin hasten dira lanean, eta lehen eztia egiten dute apirila-maiatz aldera, akaziarekin.

▼ KEA IZUTZEKO

Erlezainek kea erabiltzen dute erleak izutu eta erlauntzan gorde daitezen.

PSSTOCK-FOTO

"Baina hori oso urte gutxitan lortzen da". Gipuzkoan ekain amaiera arte edukitzen dituzte lanean, eta uztail hasieran, Araba edo Burgos aldera eramaten dituzte. "Sanferminetan, txilarretara edo eguzki loretara eramaten ditugu. Hura izaten da urteko kanpaina nagusia". Burgosen edota Araban egingo dute uda, lanean jo eta su. Irailean eztia jaso eta irail amaieran amaitzen da kanpaina.

Garciak 300 bat erle multzo dauzka, baina azken bi urteotan asko jaitsi da ekoizpena. "Gustura nengoke bakoitzak 20-25 kilo ezti emango balitu, baina azkenaldian hamar kilo inguru ari dira ematen, eta hori oso gutxi da. Profesionalek 30 kilotik gora atera behar dute erle multzoko hortik bizi ahal izateko".

> "Propoleoa erlauntza barnizatu eta desinfektatzeko erabiltzen dute erleek"

Eztia bakarrik ez

Eztia sortzea da erleen obsesioa, janaria bildu eta gordetzea. "Lorez lore ibiltzen dira nektarra biltzen. Beraiek gorputzean dauzkaten enzimekin nektar hori eraldatu egiten dute eta ezti bihurtu". Beraien hidrato iturri nagusia da eztia. "Proteinak, mineralak eta bitaminak lortzeko polena biltzen dute". Erlezainek egiten dutena da erleei lan metodologia hobetzen lagundu gehiago ekoiz dezaten, eta ondoren sortutako eztia eta bildutako polena lapurtu".

Polena jasotzeko, tranpa batzuk jartzen dizkiete erlauntzaren sarreran. "Erlea zulotik sartzen da baina hanketan dakartzan polen bolak ez dira kabitzen eta erori egiten zaizkie guk jarritako kaxa batzuetara".

Eztiaz eta polenaz gain, jelea ere ematen dute erleek. "Erle gazteek sortzen duten produktua da. Garun berezi batzuk dituzte eta pasta moduko bat sortzen dute erreginari eta bere har txikiei jaten emateko. Oso produktu berezia da eta ekoizten zaila". Hemen kontsumitzen den gehiena Txinatik ekartzen dute. "Frantzian badaude ekoizle batzuk, baina oso garesti saltzen dute. Txinatik ekartzen duguna laborategian aztertzen da, kalitatea bermatzeko".

Propoleoa ere oso produktu interesgarria da. "Erleek erabiltzen dute erlauntza barnizatzeko eta desinfektatzeko. Zuhaitzetatik hartutako erretxinarekin sortzen dute, eta antibiotiko oso indartsua da. Demostratuta dago infekzioen kontra oso indartsua dela".

PUBLIZITATEA

kuttun
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936

Egin zaitez BALEIKEko bazkide

Maluta
jatetxea • taberna
oilasko erreak • kazuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERÍA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
Marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

Nikol taberna
Zumaiako plaza ?4356151

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA KARROZERIAK
Elengabeko garabi zerbitzua
Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
638 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com

MARGARI fruta-denda
Tel.: 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEGINTZA
OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.
647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com
ZARAUTZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com
Fabrazioak
Teilatuak
Etxebizitzak
(Zukaitzak, balkoiak)
Industrian mantenimenduak
Mota guztietako igeltseritza lanak
Oliden arkitektura
678 975 552
943 143 093
Etxebizitzen inspekzio teknikoak (ITE)
Ziurtikatu energetikoak
Fabrazio diseinua eta atzikuntza
Etxebizitzen barne diseinua
Mota guztietako proiektuak

OSKARBI
KIROLAK
Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA ,S.L.
Joxe Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 - Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak
Julio Beobide Ibiltokia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
muebles ostolaza@euskalnet.net
Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA
Gosariak
Ogia
Egunkariak
Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

La Primavera
pizzeria
943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

“Eztia pasteurizatzen bada bere ezaugarriak galtzen ditu”

Getariako Giezberri enpresan ontziratzen du eztia Alfredo Garciak. Eztiak bere ezaugarri guztiak mantentzeko sekretua da ahalik eta gutxien manipulatzea. “Eztiari egiten dioguna baino garrantzitsuago da egiten ez dioguna”. Maila industrialean ekoizten duten enpresa gehienek eztia pasteurizatu egiten dutela ohartarazi du. “Pasteurizatu egiten dute eta filtro berezi batzutatik pasatzen dute polena kentzeko. Zergatik? Polenaren inguruan kristalak sortzen direlako eta testura ez da hain atsegina. Baina hori egitean eztiak bere aberastasuna eta bere ezaugarri biologiko guztiak galtzen ditu”. Azukre hutsa bihurtzen da, alegia. Giezberrin beste metodo bat dute eztiari testura krematsua emateko. “Hotzean lantzen dugu, sistema mekaniko batekin, bere ezaugarriak aldatu gabe. Horrela bere ezaugarri guztiak mantentzen ditu”.

Eztiaren inguruan dauden usteak alde batera utzita, zientifikoki frogatuta dauden ezaugarriak aipatu dizkigu Alfredo Garciak. “Elikagai modura, lehenik eta behin, oso energetikoa da, giza gorputzak berehala bereganatzen duelako. Kirolarientzat oso egokia da”. Baina osasunaren ikuspegitik ere baditu bere onurak. “liseriketa egitean ur oxigenatua askatzen du, eta oso ona da garbitzeko. Gibela garbitzeko ere oso ona da. Faktore antibiotikoak dauzka, baina soilik pasteurizatu gabeko eztietan”.

“Erregina deitzen diogu baina nik uste dut esklabua dela”

Orrialdeak eta orrialdeak idatz daizteke erleen gainean, hain da konplexua, aberatsa eta misterioz betea haien mundua. “Erleen gizartean hiru erle mota daude, baina oraindik ez dakigu oso ondo zerk eragiten duen erlea langile, mando edo erregin jaiotzea”. Erlemandoen kasuan, ikusi dute kabiak erle langileenak baino handiagoak direla. “Ez dakigu erreginaren barruan zer gertatzen den, baina suposatzen da, kabia handiagoa izatean, arrautzak errutean ez duela ipurdia behar adina estutzen eta arrautzak ernaldu gabe ateratzen direla, erlemandoen hazia ukitu gabe”. Arrautz horietatik jaiotzen dira erlemandoak; estuagoak diren beste kabietatik, berriz, erle langileak.

Erreginak sortzeko, berriz, oraindik ere kabi handiagoak prestatzen dituzte, eta erregin-jelez betetzen dituzte. Erle arrunten aldean, erreginaren harrak soilik jelearekin elikatzen dituzte. Langileari, adibidez, hirugarren egunetik aurrera polenarekin egindako papila moduko bat ematen diote. Erreginak langilearen bikoitza pisatuko du.

Erle langileen artean, gutxienez dozena erdi ofizio bereiztu dituzte adituek. Jaioberriak direnean, etxea garbitzea eta harrei jaten ematea izaten da beraien lana. Heltzen direnean, batzuek zaintza lanak egiten dituzte erlauntzaren sarreran; beste batzuek erreginaren zaindari izango dira; garraiolari izango dira beste batzuk: janari bilatzaileek ekarritakoa ahotik ahora elkarri pasaz biltegian gordeko dute; sukaldaritzan arituko dira beste batzuk: polenarekin masa bat egin eta silotan gordeko dute; eta hamar egun betetzean, kanpora aterako dira, ezti edo polen bila.

Ernalketaren “festa”

Erlemandoen lan bakarra da erregina ernaltzea. “Erregina deitzen diogu baina nik uste dut esklabua dela gehiago”, dio Garciak. “Erlauntzan sartuta dago beti, arrautzak jarri eta jarri, eta balio ez duenean akabatu egiten dute eta kitto”.

Batzutan, udaberrian, erlauntzak beteta badaude eta kanpoan loraldi oso indartsua badago, erregin zaharra eta erlekumeak bota egiten dituzte dituzte. “Barruan erle helduak gelditzen dira, eta jaiotzear dauden hogei bat erregin. Lehena jaiotzen denean berehala hazten da ahizpen kaiolak puskatzen, hiltzeko”.

Ernalketa egunak ikusgarriak izaten dira Garciak, kontatzen duenez. “Eguraldi oso ona ateratzen denean, 20-25 gradu eta zeru garbia, 12:00ak erreginak erlauntzatik aldera atera egiten dira, eta ernaltokira joaten dira. Toki berezi bat izaten da, non elkartzen diren inguruko erregin eta erlemando guztiak. Eta han gertatzen da ernalketa prozesua. Erregina gorantz abiatzen da eta atzetik erlemando guztiak. Indartsuenak harrapatzen du; ernalketan erlemandoak bere organoak galtzen ditu eta hil egiten da. Hainbat aldiz egingo du erreginak, hazitokia bete arte”.

Komunikatzeko modua

Oso bitxia da erleak nola komunikatzen diren. Erle langile batek jana topatu duenean erlauntzara bueltatzen da eta dantza berezi bat egiten du, borobilak eginez eta ipurdia mugituz: “Ipurdia mugitzen duen abiaduraren arabera adierazten du zer ahalegin egin behar duten jatekoraino iristeko. Ez dute distantzia soilik adierazten, esfortzua adierazten dute, haizea ere kontuan hartuz. Egiten duen marrazki horren ardatzak angulo jakin bat egiten du eguzkiarekin eta horrek adierazten du jana non dagoen. Oso bitxia da. Eta hori guztia erlauntzaren barruan, ilunpean”.

Erlauntzaren ilunpean gertatzen den hori da, hain zuzen ere, oraindik ez dena ondo ezagutzen. Adituek badakite erleek zer egiten duten, baina askotan ez dakite zerk eraginda egiten duten: “Dena ez dugu ezagutzen. Erlauntzaren izpiritua, barruan dauden indar horiek, beraien arteko interakzioak, komunikazioa, usainak, feromonak... Hori ez dugu ezagutzen, usaimenaren mundua da. Badakigu zer egiten duten baina ez zerk eraginda. Erle bat hasten bada lore mota batekin, hortik bakarrik bilduko du. Zergatik? Gauza berezi asko dituzte”.

Bada, gainera, loreen nektarrik gabe egiten dute ezti mota bat. “Basoko eztia deitzen diogu. Zuhaitzetan –ezkurretan, hostoetan...– sortzen diren substantziak erabiltzen dituzte ezti berezi hau egiteko”.

Jaten eman behar

Erlezainek askotan jaten eman behar izaten diete erleei, gosez hilko ez badira. “Hemen askotan lagundu egin behar zaie. Hidratoak emateko onena da glukosak ematea. Eta proteinak emateko, polenaren ordez, pasta moduko batzuk prestatzen dira irinarekin, udaberrian jasotako polenarekin, eta beste osagai batzuekin”. Udaberrian, eguraldi txarra badago, jatekoa ematen diete erregina estimulatzeko, arrautzak jar ditzan, baina batik bat negu partean ematen diete jatekoa, udaberrira sasoitsu iristeko”. Batzuk erleen jaten ematearen aurka omen daude, baina Garciaren iritziz oker daude: “Ez badiegu jaten ematen, ezin dute aurrera egin, hil egingo dira”.

Barroa, etsai mikroskopikoa

Izan ere, mehatxu asko jasaten dituzte erleek gaur egun. Larrienetakoa, barroa da, akaro mikroskopiko bat. “Duela 25 bat urte agertu zen hemen, Indiatik iritsi zen, eta sekulako arazoa da, kalte handia egiten du. Txangurro baten itxura du. Proportzioan, imajinatu besapean andarika bat izango bagenu itsasita, uneoro odola xurgatzen. Hori da erleei gertatzen zaiena barroarekin. Gure erleek jaiotzen direnetik dute barroa, zauria etengabe daukate irekita, gaixotasunak sortzen zaizkie. Gure laguntza behar dute, ezinbestean”. Barroaren erasoa ahalik eta gehien murrizteko, neguan botika ekologikoak jartzen dituzte erlauntzetan.

> “Txinako liztorrak egur garraio batean iritsi ziren Europa mendebaldera”

Txinako liztorra

Duela urte batzuk Txinatik etorritako liztor mota bat ere sekulako mehatxua da erleentzat. “Globalizazioaren kontuak dira. Ona da Txinatik produktu asko merke-merke ekartzeko, baina handik etorri zen baita ere liztor madarikatua. Nonbait, egur garraio batean iritsi ziren Europa mendebaldera”. Egurra desinfektatu egin behar izaten da legez, baina askotan kontrabandokoa da. “Bordeletik zabaldu zen. Aurrena Iparraldera, gero Bidasoara, Euskal Herri osora eta dagoeneko Galiziaraino iritsi da. Erreka bazterrak gustatzen zaizkio eta handik oso azkar zabaltzen da”.

Liztor hauek udaberritik aurrera egiten omen dute kalte gehien. “Populazioa ikaragarri hazten da eta jatekoa behar izaten dute. Erleak ehizatzera ateratzen dira orduan. Erlea harrapatu, bularretik moztu eta kabira eramaten dute. Sekulako indarra daukate haragia mozteko”. Arazoa da erleak izutu egiten direla, eta ez direla erlauntzatik ateratzen. “Ezin dute janariik bildu, ahuldu egiren dira eta neguan erlerik gabe gelditzen gara”. Duela pare bat urte Zumaian, Aizarnan eta Azpeitian eraso handia izan zuten. Orain kontrolatuago omen dauzkate. “Tranpak jarri ditugu eta erregin asko harrapatu ditugu. Badaude, baina ez hainbeste”. Garagardo beltza gustatzen omena zaie. “Botila batean, garagardo beltza, ardo zuria eta mermeladaren bat jartzen dizkiegu nahastuta. Sagar zukua ere ikaragarri gustatzen zaie. Botilan sartzen dira eta ezin dira irten”. Pare bat astean 200 liztor harrapatu zituen Garciak hiru tranparekin.

Pozoin kimikoak

Baina landareek pairatzen dituzten izurriteak akabatzeko erabiltzen diren zenbait produktu kimiko dira gaur egun erlaizainen kezkarik larriena. “Are gehiago, landare batzuk sortu dituzte, pozoin kimiko horiek ekoizteko gai direnak, adibidez, eguzkilore transgenikoa. Onddoak akabatzen dituzte, baina erleak ere pozoindu egiten dira. Duela zazpi urtetik hona, ohi baino erle gehiago hiltzen zaizkigu. Erlemandoak ere antzu ari dira bihurtzen eta erreginak ere ez dira ondo ernaltzen. Erleen bizitza ere murrizten ari da. Kutsadura kalte handia ari da egiten”.

Erlerik gabeko mundua?

Einsteinek esan zuen erlerik gabe gizakia ere lau urteko epean desagertuko litzatekeela. Alfredo Garciak ez da hainbestera ausartzen, baina oso garbi dauka hondamendia litzatekeela. “Erleak desagertuko balira hondamendi ekologikoa gertatuko litzateke. Landareen polinizazioaren %80 intsektuek egiten dute; eta intsektuen barruan erleek egiten dute gehiena. Arazo oso larria izango litzateke”. Eztiarekin baino askoz diru gehiago ematen omen digute polinizazioarekin. “Milaka milioi euro zor dizkiegu. Erakunde publikoek hori kontuan hartu beharko lukete erabakiak hartzean”.

Erlearen etorkizuna hain dago kinka larrian, jadanik erlezainen laguntza ezinbesteko dutela irauteko. “Ehundaka erle mota daude, bakartiak ere bai. Baina guk ezagutzen ditugunak, basatiak desagertu egin dira, barroaren eraginez. Guk ez baditugu zaintzen, desagertu egingo dira”. ■

Animatu eta

Izena emateko azken eguna: otsailak 6

BALEIKE.eus

GAIAK

ZUMAIAKO ALBISTEAK

Duela urtebeteko denboraleak argazkitan

Gorka Zabaleta 2015-02-02 15:42 GIZARTEA

Gaur urtebete alerta gorrian geunden euskal kostaldean, denboraleak eragindako olatu erraldoiengatik. Negu gogorra izan zen iazkoa, itsas denboraleak bata bestearen atzetik; baina irudi ederrak utzi zizkigun. Bilduma pertsonaletik batzuk aukeratu ditut.

Euskal Liga jokatuko du Zarazpe Pulpok

pulpoeskubalola 2015-02-02 16:24 KIROLA

Itxaso eta Eguzkia obra RNEko Radio Clasica-n

San Pedro Abesbatza Zumaia 2015-02-02 13:59 KULTURA

0:00 5:10

RNEren Radio Clasicaren barruan, Iker Gonzalezek moldatutako *Itxaso eta Eguzkia* obra emititu zuten Contra viento y madera saioan. Hemen entzun dezakezue aurkezlearen sarrera eta obra bera.

Otsailaren 6an hasiko dira helduen danborradako entseguak

BALEIKE.EUS
BERRIA, KOMUNITATEA INDARTZEKO

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIA: JOSU WALIÑO

Herriko talde eta elkarteentzat, eta komunikatzeko gogoa duen edonorentzat dago pentsatuta webgune berriaren Komunitatea tresna.

Matrikula aldatzeaz gain –puntucom-etik puntueus-era–, hainbat hobekuntza egin zaizkio Baleike.eus berriari. Batzuk martxan daude dagoeneko, eta beste batzuk hurrengo hilabeteetan aktibatuko dira. Oraingoz *Komunitatea* atala da berrikuntzarik aipagarriena. Tresna bat behar genuen, beste sare sozialetan dabiltzan zumaiarrak erakartzeko; eta, bestalde, herriko talde eta elkarteei beraien berriak zabaltzeko tresna erraz eta errabilgarri bat eskaintzeko.

Nola egin komunitateko kide?

Komunitateko kide egin nahi baduzu, egin klik goiko menuaren eskuinaldean dagoen "sartu" botoian. Twitter edo Facebooken kontua baduzu, horiek erabilita automatikoki sortuko dizkizu kontua eta perfila Baleikeren Komunitatean. Lehendik Baleike.com-eko erabiltzaile erregistratua bazinen, pasahitza berria eskatu beharko duzu. Ondoren, osatu zure datuak. Komunitateko kide izateko zure izen-abizenak erabili, edo ordezkatzen duzun taldearena. Komunitatean identifikatutako pertsonak bakarrik onartuko dira.

Ez bazara erabiltzaile erregistratua, orduan egin eskaera. Datuak betetzean kontuan hartu Komunitateko kide izateko zure benetako datuak eman behar dituzula. Hala egin ezean, erabiltzaile moduan sar zaitezke, baina ezingo duzu Komunitatean parte hartu.

Zer egin dezaket Komunitateko kide egiten banaiz?

Artikulu landuak idatzi edo lerro bateko komentario azkarrak. Malgua da erabat, ez du zertan albiste bat izan. Izan daiteke proposamen bat, kalean ikusitako zerbaiti buruzko komentarioa, deialdia, zerbait interesgarria partekatzeko (nonbaiten irakurritako zerbait, bideo baten lotura...); argazkiak igo daitezke, taldeak edo elkarteak daukan agendaren berri eman... Egia esan, nahi denerako erabil daiteke. Errespetuz eta euskaraz idaztea dira muga bakarrak.

Gainera, Komunitateko kide egiten bazara, blog txiki baten modukoa sortzen dizu, Facebookeko hormaren antzeko zerbait. Hor gordeko dizkizu sortzen dituzun eduki guztiak.

Twitterren edo Facebooken kontua badaukazu, haiekin lotu dezakezu eta Komunitatean argitaratutakoa kanpoko beste kontu horietan automatikoki argitaratu.

Webgune eta blog bat badaukazu, rss-aren bidez lotu dezakezu Komunitateko kontuarekin eta horrela zure webean publikatzen duzuna automatikoki argitaratuko da Komunitateko perfilean.

Udazkenerako gida komertzial digitala

Azken urteotan Baleikeren kezka izan da herriko dendari eta negozio txikiari Internetera jauzia egiteko tresna erakargarri eta eraginkorra eskaintzea, eta uste dugu Tokikomen plataformak garatu duen gida komertzial digitalak hori eskaintzen digula. Urtea amaitu baino lehen prest izango dela aurreikusten dugu.

Baleike.eus berria Tokikomek tokiko hedabideentzat propio sortutako plataforma digitaleko kide da, beste hamar bat hedabiderekin batera. Horrek aukera emango digu Interneten aurrean egoteko, berrikuntzak eta inbertsioak denon artean egiteko, eta elkarrekin sarea egiteko. Klub horretako kide izan nahi genuen, horrek aukera emango digulako zumaiarroi ahalik eta webgunerik onena eskaintzeko.

PUBLIZITATEA

BAZKIDE KLUBEKO ABANTAILAK

Txartel berriarekin **hamaika abantaila** dituzue Zumaiako denda, taberna, jatetxe eta negoziotan. Hemen zerrenda:

Rosi garbiketak
Hilabeteko lehen ostiralean %10eko deskontua edredoi eta mantetan.

Arruti arropa denda
%5eko deskontuak abenduan erosketa guztietan. Ez da bateragarri izango beste deskontuekin.

Maiaur
Abendua eskeintza bereziak etxeko izozkietan.

Xumai kirolak
%5eko deskontua produktu guztietan.

Yoana ileapaindegia
Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

Endañeta elektrogailuak
%5eko deskontua kontrazaleko iragarkian ageri diren produktuetan.

Ertz informatika
Ordenagailu eramangarria eta jokoak erostean %5eko deskontua. Ordenagailu eramangarrien konponketan %5eko deskontua.

Tximista taberna
Astearte eta asteazkenetan, inportazioko bi garagardo ordaindu eta hirugarrena doan.

Juanjo haratagia
10 eurotik gorako lehen erosketarekin, ardo botila opari. Bazkide txartelaz gain, aldizkarian argitaratuko den kupoia erakutsi beharko da.

Basusta Erretegia
Astelehenetik ostiralera, kartako bazkariak %10 merkeago.

Flysch-Uzkudun taberna
Eguneko menuarekin, kafea debalde.

Iratxe Plazaola
Sei hilabetez, asteazkenetan errebisioa eta aho eskubila doan. Bazkideak eta beraien bikote eta seme-alabek balia dezakete eskaintza, bakoitzak behin.

Marina kafetegia
Bost pizza erosita, seigarrena doan. Txartel bana jasoko da erositako ale bakoitzeko, eta bost osatutakoan, pizza baten truke aldatzeko aukera izango da.

Egoki erlojudenda
%10eko deskontua erlojuetan, eta urre edo zilarrezko bitxietan. Deskontu hau ezin zaie beste eskaintza batzuri gehitu.

Zalla taberna
Udazkenean, kafea euro batean.

Nikol taberna
Ostegunetan lehen garagardoa euro batean.

Ana zapiak
%5eko deskontua produktu guztietan.

Basusta loredenda
Azaroaren 3tik martxoaren 12ra, %10eko deskontua 25 eurotik gorako erosketa eginez gero, hileta eta ezkontza zerbitzuak ezik.

Kabi taberna
Garagardo kaña 1,5 euroan.

Juaristi jatetxea
Afariarekin kafea doan; kafea hartzen ez duenak txupitoa aukeran.

Trapaia taberna
Igandetako bazkariarekin kafea opari.

Ttakun taberna
Ostegunetan kafea euro batean.

Zatozte bakailudenda
Astelehenetan %5eko deskontua txarkuteriko produktuetan.

Ganbara taberna
Garagardo kaña 1,5 euroan bazkideei.

Inpernupe taberna
Kafea euro batean bazkideei.

Otezuri taberna
Etxeko tartak %10eko deskontuarekin.

Optika Zumaia
%10eko deskontua betaurreko eta eguzkitako betaurrekoetan.

Ukendu parafarmazia
Baleike txartelarekin %5eko deskontua erosketa guztietan. Ez da bateragarria izango beste deskontu txartelekin.

Margari frutadenda
Baleike txartelarekin %10eko deskontua urte osoan.

Ekin elektrizitatea
LED lanpara eta papertegiko materialetan %10eko deskontua.

Iriondo optika
Haurrengan ikasketa arazoak eta "begi alferra" ekiditeko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua doan.

D'Ana ileapaindegia
Ilea garbitzeko produktu ekologikoak eta alergiaren kontrakoak (kolorante eta osagai toxikorik gabeak) %15eko deskontuarekin.

Upela belardenda
15 eurotik gorako erosketa eginez gero, 150 gramo zereal opari (kinoa izan ezik). 30 eurotik gorako erosketetan, ezpainetarako margoa opari (aleak agortu arte).

Yoana ileapaindegia
Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

Golden Gate Institute
Matrikulazioan %20eko deskontua bazkideentzat.

Ilargi taberna
Kafeak euro batean.

La Primavera Pizzeria
Bazkideentzat etxera eramatea doan.

Beheko Plaza jatetxea
Igandetan pintxoa doan.

A3
Artikulu guztietan %5eko deskontua.

Talaipe jatetxea
Bi lagunentzako hiru mariskada bazkideen artean zozkatzeko.

Talaia jatetxea
Ostiraletan afariarekin kafea eta txupitoa doan.

Artaza kanpin ekologikoa (Urbasa-Lizarra)
Baleike txartelarekin %10 merkeago.

Iruitz ileapaindegia
Asteartetik ostiralera, ilea keratinarekin hidratatzeko tratamendua %25 merkeago. Txanda aurrez hartu behar da.

Ardantzabide altzariak
Ispiluak %10 merkeago.

Aizpurua liburudenda
Haur eta helduentzako irakurketarako liburuak %5 merkeago.

Oskarbi kiroldenda
Arropan %5eko deskontua.

Txalaparta
Bazkide txartelarekin produktu guztiak %5 merkeago, merkealdian izan ezik.

Kuttun
2014ko abenduaren 31 arte, %5eko deskontua produktu guztietan. Ezingo zaio bestelako deskonturik gehitu.

Kalari taberna
Igandean afariak %10 merkeago.

	EGUNAK	HILEKO ESLOGAN-A	ESKAINTZA	AZALPENA
URTARRILA	7tik bukatu arte	Puntuak trukatzea	Puntuak	Lortutako puntuak trukatzea
OTSAILA	1-28	Sasoian jartzeko	Saria	10 euroko txartelak, botika, parabotika, edergintza zentro, belardenda, fisioterapia, optika eta ile-apaindegietan trukatzeko
MARTXOA	1-31	Pintxoz pintxo	Saria	Kontsumizioa tabernetan. Balioa 3 €
APIRILA	1-30	Udaberria Zumaian	Deskontua	5,10, 20 eta 50 euroko erosketa txartela.
MAIATZA	1-31	Udaberria Zumaia	Oparia	Oparia ezustean
EKAINA	1-30	Merkataritzaren astea	Oparia	Oparia ezustean
UZTAILA	1-30	Badator uda	Deskontua	2 lagunentzako bazkaria/afaria. Balioa 60 €.
IRAILA	1-30	Eskolara Itzultzea	Oparia	Oparia ezustean
URRIA	1-15	Eskolara Itzultzea	Oparia	Oparia ezustean
AZAROA	1-30	Bezeroaren hilabetea	Deskontua	5, 10, 20, eta 50 euroko erosketa txartela.

EUSKARA, BESTELA EZ GARA

Zumalako Udala

HITZALDI ZIKLOA ZUMAIAN

Alondegian 18:30ean

Otsailak 18
Iñaki Iurrebaso
Herri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa EAEn, 1981-2011.

Otsailak 25
Josu Waliño
PuntuEUS domeinua: abizen egokiaren garrantzia.

Martxoak 4
Lorea Agirre
Hizkuntza eta kulturaren garraio, bidegorriak.

Martxoak 11
Iñaki Markoren aurkezpena eta mahai-ingurua
Ekolingua saioak Zumaian.

euskara txanpla

OTSAILA - MARTXOA

DEIALDIAK

Otsailak 18, 25, martxoak 4, 11
Oxforden, Euskara, bestela ez gara hitzaldi zikloa
Otsailak 20 arte
Emakumearen Eguneko kartel lehiaketa, lanak aurkezteko epea
Otsailak 13-16
Inauteriak 2015 (Ikusi egitaraua)
Otsailak 12, 26 / Martxoak 12, 26
SENDIAN: Adineko ezinduak zaintzen dituzten familientzat Laguntza Taldea. Brankan. 943-862200, gizartelangilea@zumaia.eus

ERAKUSKETAK

Urtarrilak 27-otsailak 13
IRANZU ANTONA - Paisaia egin
Urtarrilak 29-otsailak 17
INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA Alondegiko sarreran
Otsailak 19-martxoak 4
DARAHLI
Martxoak 6-22
PALESTINAKO LURRALDE OKUPATURAKO BIDAIA
Martxoak 25-apirilak13
JOXERRA ELORTZA

OTSAILA

6, ostirala
22:00 Aita Marin antzerkia: 'Distancia siete minutos' Titzina taldearen eskutik
7, larunbata
11:00 Algorri Interpretazio zentroan 'Altxorraren bila' jolasa (6-12 urte). Info+ 943143100
19:00 Komentuan ZUMB-Musika Bandaren inauterietako pregoia: 'Flower Power Party'
12, osteguna
22:00 Aita Marin zine forum: 'Sólo los amantes sobreviven'. Zuz.: Jim Jarmusch
13, ostirala
19:30 Forondan Gune elkartearen meditazio saioa
16, astelehena
15:00 eta 17:30 Maria eta Josen Pirritx Porrotx eta Marimototsen inauteri saioak
18, asteazkena
18:30 Oxford aretoan Euskara, bestela ez gara zikloan, Iñaki Iurrebaso: 'Herri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa EAEn, 1981-2011'
20, ostirala
22:00 Aita Marin kontzertua: Mikel Urdangarin
21, larunbata
Zumaiako XXXI. Herri lasterketa
15:00 haurrak (aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak)
15:45 patinak, 14,2 km
17:00 10,2 km eta 5,6 km-ko lasterketak
25, asteazkena
18:30 Oxford aretoan Euskara, bestela ez gara zikloan, Josu Waliño: 'PuntuEUS domeinua: abizen egokiaren garrantzia'
26, osteguna
22:00 Aita Marin, zine forum: 'La sal de la tierra'. Zuz.: Wim Wenders
27, ostirala
19:30 Forondan Gune elkartearen solasaldia: 'El proyecto Waldorf, una educación alternativa' (Raimundo Caramés / Miriam López de Luzuriaga)
22:00 Maria eta Josen Darahli elkartearen kontzertu solidarioa: Eñaut Elorrieta
28, larunbata
09:30 Txirrindulari proba: Euskaldun Torneoa, estatuko mailako Elite Sub 23

MARTXOA

4, asteazkena
18:30 Oxford aretoan Euskara, bestela ez gara zikloan, Lorea Agirre: 'Hizkuntza eta kulturaren garraio, bidegorriak'
7, larunbata
11:00 Algorri Interpretazio zentroan hegaztientzat habi kutxa tailerra (familiei zuzenduta). Info+ 943143100
11, asteazkena
18:30 Oxford aretoan Euskara, bestela ez gara zikloan, Iñaki Markoren aurkezpena eta mahai ingurua: 'Ekolingua saioak Zumaian'
12, osteguna
22:00 Aita Marin, zine forum: 'Gloria'. Zuz: Sebastián Lelio.
13, ostirala
19:30 Forondan Gune elkartearen meditazio saioa
22:00 Aita Marin antzerkia: ATX Teatroaren 'Arren ganbara eta emeen sotoa'
14, larunbata
Zuhaitz Eguna
15, igandea
12:00 Aita Marin haurrentzat antzerkia: 'Logela Multimediaren Barbantxo'
18, asteazkena
10:30 Korrika Txikia
22, igandea
Korrika 2015 Zumaiara iritsiko da
26, osteguna
22:00 Aita Marin zine forum: ikusleek aukeratutako filma
27, ostirala
19:30 Forondan Guneren solasaldia: 'Mindfulness eta hezkuntza positiboa ongizatea sustatzeko. Mindfulness EHUn eta Baraka proiektuan' (David Alvear)
29, igandea
18:00 Aita Marin antzerki musikala: 'Rise & Shine'

EÑAUT ELORRIETA

27, ostirala
22:00 Maria eta Josen Darahli elkartearen kontzertu solidarioa

Maialen **VELARDE**

BALEIKE.EUS

Doinua: "Norbere mundu intimo"

1.

Nork ez zaitu irakurri
igandeko gosaritan
Nork ez zaitu begiratu
zain medikuan, dentistan
Nork ez du jakin-mina ase
mugikorraren argitan
euskeraz kontu kontari
herritarren istoritan
eta beste behin murgildu
nahi zenuke ur berritan
bide luzeak marraztu
daitezke pauso txikitan

2.

Nahiz esan, balu, balego
balitz edota baleike
Begi bat itxi ohi duzu
edo lumak tintaz bete
sarean ere ez dago
iritzirik entzuteke
Jakin-minak hori dauka
beti gehiagoren eske
eta "baldintza" ez bada
orain arte izan neke
"baleike" "bada" bihurtzen
jarraitu zenezakete

3.

Komunitatea edo
Tokikomen meritua
hitzen, teknologiaren
garai ezin gelditua
halere nork ez du inoiz
inguruan aditua
hitzak haizeak eraman
ditzakeela aipua
baina ea geratzen den
denboran zaharkitua
Baleikek eman baitie
merezi zuten lekua

ANDER HORMAZURI

Maria eta Jose
IKASTETXEA

ZATOZ GUREKIN, GOZATU ZURE ABENTURA

AURREMATRIKULA: Otsailaren 2tik 13ra

Tel.: 943860462 – WWW.MARIATAJOSE.EUS

OIKIAKO ESKOLA

OIKIAKO HERRI ESKOLA

baikara

2tik 12 urte arte auzoan ikasteko aukera

- Talde txikiak (banakako heziketa).
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Bertsolaritza Proiektua.
- Teknologia berrien erabilera: ESKOLA 2.0
  Bloga: http://oikiakoeskola.blogspot.com
  WEB ORRIA: http://www.oikiakoeskola.hezkuntza.net
- Psikomotrizitate gela.
- Ingelera, Heziketa Fisikoa, Musika eta Heziketa Bereziko irakaslego espezializatua.
- Eskola baratza.
- Jangela zerbitzua.

AURREMATRIKULA EPEA:

Otsailaren 2tik 13ra

Tel-faxa: 943 862 046 e-posta: 012299aa@hezkuntza.net

Webgunea: www.oikiakoeskola.hezkuntza.net

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

ZUMAIAKO HERRI ESKOLA
ZHE
ZUMAIAKO INSTITUTUA

KALITATEA HEZKUNTZAN

MATRIKULA

otsailaren 2tik 13ra

HH-LH
ATE IREKIAK
otsailak **7**

- ✔ **Haur Hezkuntza**
- ✔ **Lehen Hezkuntza**
  2 urtetik 12 urte arte

ZUMAIAKO HERRI ESKOLA
Aita Mari, 44,
Sagarbidea, 1
tel. 943 86 10 37; faxa: 943 86 25 01
e-posta: 012972aa@hezkuntza.net
webgunea: zumaialhi.hezkuntza.net

INSTALAZIOAK:
- Elbarrituentzat egokituak
- Psikomotrizitate gelak
- Liburutegiak
- Laborategiak
- Irratia
- Informatika Gelak
- Teknologia tailerrak
- Gimnasioa / Frontoia

ZERBITZUAK - EKINTZAK:
- Jantokia
- Garraioa DBHn
- Zaintza (7:30-9:00)
- **BIDELAGUNA** (Errefortzu programa arratsaldez)
- HOBETUZ ikastaroak
- Erasmus +
- Aldizkaria

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK:
- Brain Gym
- Hezkuntza psikomotrizitatea
- Jolasten ikasi
- Kirola
- Mekanografia

- ✔ **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**
- ✔ **Z.I.G. / A.A.T.**
  (Zereginen Ikaskuntzen gela)
- ✔ **Batxilergoak**
  - Giza eta Gizarte Zientziak
  - Zientzia eta Teknologia
- ✔ **Heziketa Zikloa**
  - Administraritza eta Finantzak (Goi Mailakoa)

ZUMAIAKO INSTITUTUA
Aita Mari auzategia, 45
Sagarbidea, 1
tel. 943 86 08 09 / 943 86 23 20
faxa: 943 86 08 10
e-posta: zumaiabhi@gmail.com
webgunea: zumaiabhi.hezkuntza.net